



DEIALDIA, DIRULAGUNTZAK EMATEKO BIZITZAREN ARLO GUZTIETAN EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO EGIAZKO BERDINTASUNA ERDIESTEKO PROIEKTUAK ETA JARDUERAK 2026an EGITEN DITUZTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ELKARTE ETA ERAKUNDEEI

Estella-Lizarrako Udalak, Berdintasunerako eta LGTBI+ politiketarako Batzordearen bidez, deialdi honen xedea du deialdi honen 1.1 atalean zehaztutako jarduketak egiteko eta Estella-Lizarrako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean xedatutakoa betetzeko dirulaguntzak norgehiagoka araubidean emateko prozedura garatzea. Deialdi honetan aurreikusi ez den orotan, Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrean (NAO. 56, 2016ko martxoaren 22koa) xedatutakoa aplikatuko da.

OINARRIAK

1.- Deialdiaren xedea eta helburua:

Dirulaguntzak ematea Estella-Lizarrako emakumeen elkarteei eta irabazi asmorik gabeko beste entitate batzuei, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunaren alde eta emakumeen eta nesken ahalduntzearen alde egiten duten jarrerak eta jokabideak pixkanaka aldatzea sustatzen duten programak eta jarduerak finantzatzeko. Horrez gain, hori guztia ahalbideratuko duen ezagutzaren aurrerapenari, ikerketari eta hori erraztuko duten azterlanen eta dokumentazioaren hedapenari laguntzea, 2026. urtean. Proiektuak edo jarduerak oso-osorik Lizarrako udal mugapean garatu beharko dira.

Deialdi honek emakumeen elkarteek, feministek eta irabazi asmorik gabeko beste erakunde batzuek egiten dituzten udal esparrutik jarduerak laguntzeko tresna izan nahi du. Emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko jarduketak, balioen aldaketa, emakume eta neskatoen ahalduntzea bizitzako eremu guztietan, zainketen balio-handitzea eta emakume eta neskatoen aurkako edozein motatako indarkeriaren ezabaketa sustatu eta bultzatuz, emakume eta neskato guztien herritartasun-eskubideen erabateko erabilera bultzatuz.

2. Dirulaguntza emateko prozedura.

Dirulaguntza emateko prozedura norgehiagokako araubidean tramitatuko da. Xede horretarako, dirulaguntzak emanen dira behar den denboran eta forman aurkeztutako eskaerak aztertuz, eta oinarri arautzaile honen 10. zenbakiko oinarrian ezarritako irizpideak aplikatuz.

3.- Baliabide ekonomikoak

Estella-Lizarrako Udalak dirulaguntza deialdi honetarako 2026an zuzentzen duen aurrekontua Estella-Lizarrako udalerrian genero berdintasuna erdiesteko bidean aurrera egiteko jarduerak eta programak gauzatzeko 12.000 eurokoa da, 239104820000 "Dirulaguntzak Elkarteei Berdintasun Arloa" diru-sailaren kontura, 2026 ekitaldikoa.

Dirulaguntzak emateko baldintza izanen da kreditu egoki eta nahikoa izatea ebazpena ematen den unean, Dirulaguntzei Buruzko Lege Orokorren Arautegiaren 56. artikulua xedatzen duen bezala (887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa).



4.- Elkarte onuradun izateko baldintzak

Dirulaguntza jasoko dute Estella-Lizarrako emakumeen elkarteek eta irabazi asmorik gabeko beste Entitateek berdintasun arloan lan egiten dutenak eta eskabideak aurkezteko epea amaitzean honako baldintza hauek betetzen dituztenak, baldintza hauek ekitaldi ekonomiko osoan zehar mantendu beharrekoak dirulaguntza jaso ahal izateko:

- a) Pertsona juridikoa izatea, legeari jarraikiz eratuak eta Nafarroako Gobernuko elkartearen eta/edo Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren emakume elkartearen erregistroan behar bezala inskribatuak izatea, uztailaren 27ko 52/2016 F.D.aren babesean eratuak, Nafarroako Foru Komunitateko Emakume Elkartearen zentsua arautzen duena.
- b) Elkarteak irabazi asmorik ez izatea.
- c) Helbide soziala eta fiskala Lizarran izatea, eta osorik diruz lagundutako programa, proiektua, jarduera edo jarduerak Lizarrako udal mugapean egitea.
- d) Aurreko urteetan jasotako dirulaguntzen zenbatekoak oraindik egiaztatu gabe ez edukitzea.
- e) Estella-Lizarrako Udalarekin ez izatea lankidetzaren hitzarmenik edo kontraturik dirulaguntzaren xedean den programa, proiektu, jarduera edo jarduketa bererako, eta Estella-Lizarrako Udalaren arlo honetako edo batzuetako dirulaguntzarik ez izatea jarduketa berberetarako.
- f) 1 eta 5 oinarrietan ezarritakoaren araberrako jarduerak burutzea, eta beren estatuen xedean parte-hartze aktiboa bultzatzeko jarduerak gehitzea, baita bizitza sozialean, kulturean, ekonomikoan eta politikoan edo generoaren ikuspegitik emakumearen egoera hobetzeko izanen diren beste jarduerak analogoak ere, hau da, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatuko dituztenak.
- g) Proposatutako helburuak betetzea bermatuko duen funtzionamendu-egitura izatea, eta helburu horiek lortzeko beharrezko ibilbidea, esperientzia eta/edo gaitasuna egiaztatzea.
- h) Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Estella-Lizarrako Udalarekin eguneratuak izatea.

Berariaz gelditzen dira deialdi honetatik kanpo:

1. Pertsona fisikoak
2. Enpresak eta irabazi asmoa duten erakundeak.
3. Deialdi honetara aurkeztutako programa, proiektu, jarduera edo jarduerak deialdiaren xedean sartzen ez diren elkarteak eta/edo Udal honen beste deialdi espezifiko batean jasotako helburuetarako bakarrik direnak.

Baldintza horiek guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean bete beharko dira, eta diruz lagundutako jarduerak irauten duen bitartean ere bete beharko dira.



5.- Dirulaguntzak jaso dezaketen proiektuak / Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

5.1. Diruz lagunduko diren proiektuak jarduera hauetara zuzenduak direnak izanen dira:

- a) Emakumeen elkartegintza eta parte-hartze soziala bultzatzea, laguntzea eta dinamizatzea, emakume eta nesken ahalduntze banakakoa eta kolektiboa sustatuz.
- b) Emakumeen presentzia eta parte-hartzea bultzatzea eta finkatzea gutxiegi ordezkaturik dauden esparruetan.
- c) Ikertzea, jendarteratzea eta/edo sentsibilizatzea arlo hauetan: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, emakumeen eskubideen sustapena eta defentsa, eta emakume erreferenteen eta emakumeen genealogien sorrera.
- d) Honako hauei buruzko prestakuntza ematea: emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, emakume eta nesken ahalduntzea.
- e) Emakumeen eta nesken aurkako indarkeria prebenitzea eta desagertzea.
- f) Emakumeen eskubideekin eta eskaerekin lotutako garrantzi bereziko datak aldarrikatzea.
- g) Estella-Lizarrako Elkarten topaketa burutzea, emakumeen elkarten mugimendua dinamizatzeko, motibatze eta bultzatzeko helburuarekin; hala nola, elkarten arteko trukea eta kooperazioaren sustatzea egiteko.
- h) Hausnarketa piztea eta zainketak eta erantzunkidetasuna balioestea, erantzunkidetasunaren arloko beharrak konpontzea eta zalantzan jartzea sexuen arabera lan banaketa.
- i) Beste aldagai batzuekin –besteak beste adinarekin, dibertsitate funtzionalarekin, orientazio sexualarekin edo genero identitatearekin– izandako interseksionalitate sortzen diren hainbat desberdinkeria lantzea.

5.2. Deialdi honetatik at geratuko dira proiektu eta jarduera hauek:

- a) Diseinu, abiarazte eta ebaluazioan genero ikuspegia ez duten proiektuak.
- b) Udalaren Berdintasun Zerbitzuaren berezko programak eta jarduerak.
- c) Diruz lagundutako entitatearen edo elkartearen langileen nominak.

5.3. Zuzeneko gastuak izan ahalko dira:

- a) Laguntza teknikoa (enpresen kontratazioa, profesionalen ordainsariak, joan-etorriak, dietak eta ostatua). Enpresa bat kontratatzen bada, enpresak generoaren arloko prestakuntza duten langileak dituela ziurtatu beharko du, gutxienez 240 ordu, eta langile horiek garatu beharko dute proiektua.
- b) Diruz lagundutako jarduerari lotutako gastuak orokorrean, haien artean argitalpen, publizitate edo hedapen gastuak.



- c) Jarduera egiteko erabiltzen diren lokalen edo ekipamenduen alokairu gastua edo material suntsikorrena (gehienez %20 diruz lagundutako kopurutik). Alokairuari dagokionez soilik onartuko da alokairuaren dirulaguntza ekintza ezin izan denean lokal publiko batean egin. Kasu hauetan justifikatu beharko da zergatik ezin izan den areto edo gune publiko batetan.
- d) Bere burua zaindu ezin duten pertsonak diruz lagundutako jarduerak egiten diren bitartean zaintzearen ondoriozko gastuak (haurtzaindegia, ludoteka, zaharren zainketa...)

5.4. Deialdi honetatik kanpo geratzen diren gastuak: gosegarri, bazkari eta antzekoak, publizitatearekin erlazionaturik dauden gastuak edo elkarte beraren promozioa.

5.5. PFEZaren atxikipena duten fakturek, atxikipen horien ordainketa haziendari erantsi beharko dute. Km.aren kasuan, gehienez ere 0,35 euro onartzen da ibilitako km bakoitzeko.

Faktura lortu ezin den kasuetan, hartze-agiriak onartuko dira, datatuak eta sinatuak, dirulaguntzaren hartzailearen datuak izanen dituztenak. (Izena, deiturak, NAN eta jasotako zenbatekoa).

Sarrerak, zozketak, ikastaroak... edo tiketek bidezko salmentako bestelako diru-sarrerak badira, entitate onuradunaren idazkariaren ziurtagiria erantsiko da.

5.6. Zinpeko aitortpena aurkeztu beharko da, faktura bakoitzean sartutako BEZaren kengarritasunari buruzkoa. BEZ kengarria ez da inola ere diruz lagunduko.

5.7. Justifikazioaren aurkezpena Udalaren Erregistro Orokorrean elkartearen ordezkariak egindako eskabide baten bidez egiten da, horrekin batera, agiri ofizialak edo aipatu egiaztagirien kopiak erantsiko dira, baita egindako jardueren memoria ere, atxikituta dagoen V. eranskineko ereduaren arabera, eta Excel formatuan igualdad-berdintasuna@estella-lizarrarra.com posta elektronikora bidaliko da.

5.8. Elkarte/entitate bakoitzak proiektu bakarra aurkeztu dezake.

6.- Eskararak eta dokumentazioa.

Eskabideak egiteko, eskabidea aurkeztu beharko da, dirulaguntzaren eskabidea egiteko behar adinako ordezkariak duen pertsonak sinatua. Pertsona horrek bere erantzukizunpean adierazi beharko du ordezkari hori.

Dirulaguntza eskatzen duten emakumeen elkarte edo irabazi asmorik gabeko entitateek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, jatorrizko agiria edo behar bezala konpultsatutako kopia izanen dena:

- a) Estella-Lizarrako Udaleko Eskabide Orokorra, entitatearen presidenteak sinatuta.
- b) Proiektuaren deskribzioa (I. Eranskina).



- c) Nortasunaren frogagiriak, estatutuak (gizon eta emakumeen arteko benetako berdintasuna bizitzaren eremu guztietan lortzeko entitateak duen konpromisoa erakusten dutenak) eta identifikazio Fiskalaren txartela. (Ez da beharrezkoa izanen aipaturiko dokumentazioa aurkeztea, estatutu horiek aurretik emanak izan badira eta ez badute gerora aldaketarik izan).
- d) Banku entitatearen jatorrizko ziurtagiria, zeinetan dirulaguntza sartu beharko den. Egiaztagiri hori eguneratutako dataekin aurkeztu beharko da.
- e) Elkaratearen edo entitatearen ordezkariak sinatutako adierazpena, ordezkari organoa osatzen dutenen identitatearen eta sexuaren berri ematen duena. (III. Eranskina)
- f) Elkarteen kasuan: elkaratearen ordezkariak sinatutako adierazpena, emakumezko bazkideen kopurua, gizonezko bazkideen kopurua eta 30 urtetik beherako emakumezko bazkideen kopurua zehazten dituenak. (III. Eranskina)
- g) Ziurtagiri eguneratua, elkarateak edo entitateak zerga betebeharrak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Estella-Lizarrarekin eguneratuak dituela egiaztatzen duena, deialdia argitaratu ondoren luzatua.
- h) Elkaratearen edo entitatearen ordezkariak egindako erantzukizunpeko adierazpena (II. Eranskina), puntu hauek baieztatzen eta/edo aitortzen dituenak:
 - Ez duela diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluan diru-laguntzen onuradun izateko ezarritako debekurik.
 - Entitate eskatzaileak beste edozein administrazio publikoaren edo pribatuaren laguntzak jaso eta/edo eskatu dituela xede eta helburu bererako.
 - Entitateak zigor edo administrazio arloko zehapen baten ondorioz dirulaguntza publikoak lortzeko aukera galdu ez duela, eta horretako desgaiak ekartzen duen legezko debekurik jaso ez duela.

Dirulaguntza eskaera aurkezteak berarekin dakar deialdi hau arautzen duten oinarri guztiak onartzea.

7.- Eskaerak aurkezteko epea eta lekua.

7.1.- Eskaerak aurkezteko lekua

Dirulaguntza eskaerak Lizarrako Udaleko Erregistroan aurkeztu beharko dira Sortzez Garbia pasealekua, 1, Lizarra, 31200 (Nafarroa) (astelehenetik ostiralera, 9:30etik 14:00etara). Halaber, telematikoki aurkeztu ahal izanen da Lizarrako Udalaren erregistro orokor elektronikoen bidez, Udalaren egoitza elektronikoa eskuragarri (<https://sedeelectronica.estella-lizarra.com/>). Erregistroarekin batera, erakundeko Lehendakariak edo ordezkariak behar bezala egiaztatuta duenak sinatutako eskabide bat aurkeztu beharko da. Eskabide hori Estella-Lizarrako Udalaren eredu ofizialera egokitu beharko da.



7.2 Epea

Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izanen da, deialdi honen iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epea amaituko da deialdia argitaratzen den egun berean hilabeteko muga-egunean. Muga-eguneko hilean ez badago zenbaketaren hasierako egunaren baliokiderik, hilaren azken egunean bukatuko da epea.

Eskaerak epez kanpo aurkeztuz gero, ez dira onartuko.

8.- Akats zuzenketa dokumentazioan.

Emandako eskaerak edo dokumentazioak deialdiak ezarritako baldintzak betetzen ez baditu, interesaturik dagoen entitateari eskatuko zaio gehienez ere hamar laneguneko epe luzaezinean, zuzenketa egiteko. Eginen ez balu, bere eskaera bazterturik geratuko dela adieraziz, aurrez harturiko erabakiaren bidez, eta erabaki hori idatziko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/0015 Legearen 68. artikuluekin bat.

9.- Argibidea eta aholkularitza.

Udaleko Berdintasun Zerbitzuak informazioa eta aholkua eskainiko die deialdi honen esparruan dirulaguntza eskatzeko interesa daukaten elkarteei. Kontsultak 948548237 eta 648201040 telefonoen bidez (9:30etik 14:00etara) edo igualdad.berdintasuna@estella-lizarra.com posta elektronikoren bidez egin ahalko dira.

10.- Dirulaguntzen ematea zuzenduko dituzten irizpideak

Dirulaguntzak emateko eskabideen baloraziorako irizpide objektiboak honako hauek izanen dira:

Aurkeztutako proiektuaren kalitateari buruzko irizpideak: 60 puntu

- a) Proposamenaren kalitate teknikoa: helburuen arteko koherentzia, neurriak, aurreikusitako denborak, baliabide ekonomikoak eta giza-baliabideak eta ebaluazioa (10 puntu)
- b) Genero ikuspegiaren txertatzea proiektu osoan eta hizkera ez sexista. (8 puntu).
- c) Proiektuak emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzen duten entitatearen gainerako proiektu edo jarduerekin duen erlazioa.(4 puntu)
- d) Proiektua errealitatera eta herriaren berriazko beharrei egokitzea.(10 puntu).
- e) Jardueren eragina edo esperotako emaitzak udalerrian.(5 puntu).
- f) Elkarte edo entitatearen lankidetzaren emakumeen beste elkarte batzuekin proiektua prestatu eta gauzatzeko. (10 puntu).



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

- g) Proiektuak berdintasunaren aldeko aurrerapenean duen interes soziala eta elkartean emakume gazteen parte-hartzea sustatzea.(5 puntu).
- h) Proiektuko jardueren osagarritasun Udalaren berdintasun jarduketekiko.(5 puntu).
- i) Elkartearen parte hartzea Arloak edo NABlak sustatzen dituzten ahalduntze-kolektiboko programetan. (3 puntu).

Entitate eskatzailearen gaitasuna eta helburuak: 30 puntu

- a) Emakumez osatutako elkartea izatea (sortze-akta aurkeztuko da edo justifikatzen duen dokumentua).(10 puntu)
- b) Entitate eskatzailea emakume elkarte bat ez bada, entitatearen konpromisoa emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna bere lanean: esperientzia berdintasunean, lan-urteak, berdintasun eragilea izatea... (5 puntu)
- c) Aurreko proiektuen betetze maila. (5 puntu).
- d) Asoziazionismoaren sustapena eta emakumeen parte-hartzen soziala handitzea. (5 puntu).
- e) Izaera berritzailea duen jarduera, lana emakumeekin (indarkeria matxista, etorkinak, alargunak, desgaitasuna daukaten emakumeak, etab.).(5 puntu).

Proiektuaren aurrekontu orokorra: 10 puntu

- a) Entitate eskatzailearen baldintza eta aukera ekonomikoak proiektua garatzeko.(3 puntu).
- b) Aurrekontua azaldutako jarduerekin bat etortzea.(5 puntu).
- c) Proiektuaren aldibereko finantzaketa maila: erabiltzaileen ekarpenak, entitateak aurreikusitako beste finantzaketa iturri batzuk.(2 puntu).

Emanen den dirulaguntza hurrengo ehuneko hauek ezarrita lortuko da, jasoko den %100 2.250 € izanik:

91tik 100 puntu bitarte lortzen duten proiektuak: eskatutakoaren %100.

81etik 90 puntu bitarte lortzen duten proiektuak: eskatutakoaren %90.

71tik 80 puntu bitarte lortzen duten proiektuak: eskatutakoaren %80.

61etik 70 puntu bitarte lortzen duten proiektuak: eskatutakoaren %70.

50 eta 60 puntu bitartean lortzen dituzten proiektuak: eskatutakoaren %60.

Gutxienez 50 puntu erdiesten ez dituzten proiektuak baztertuko dira.

11.- Balorazioa eta dirulaguntza emateko prozedura.



Estella-Lizarrako Berdintasun Arloari dagokio dirulaguntza emateko prozeduraren instrukzioa. Dirulaguntzak emateko prozedura norgehiagokako araubideari jarraikiz tramitatuko da. Aurrekontuko partida agortzen bada dirulaguntzaren xede izateko gutxieneko puntuaziora iristen diren eskaera guztiei erantzun gabe, hainbanatu egingen da zenbateko orokorra 10. Oinarrian adierazitako kopuruaren arabera.

Batzordeak txostena ikertuko du eta Tokiko Gobernu Batzordeari edo Udalbatzari proposatuko dio onartzea eta ordainketa, bere konpetentzien mugen barnean, nolana ere, dirulaguntzak murrizteko proposamen ahalmena gordez, benetan egin diren gastuen mugaraino.

12.- Diru-laguntzen zenbatekoa.

Deialdi honetarako ezarritako gehieneko kopurua **12.000,00 eurokoa** da, zeina 239104820000 "Dirulaguntzak Berdintasun Arloko Taldeak" diru-sailari egotzia izanen den, Estella-Lizarrako Udalaren 2026 urteko aurrekontukoa.

Estella-Lizarrako Udalak dirulaguntza emateko gehieneko kopuru bat ezartzen du, 2.250€ izanen da.

Deialdian parte-hartzen duten elkarte eta entitate guztiek lortutako puntuazioa diru-sailak duen zenbatekoa baino handiago bada, banaketa modu proportzionalen egingen da, gehieneko kopurura heldu arte.

13.- Bateragarritasuna beste dirulaguntza batzuekin.

13.1. Deialdi honetako dirulaguntzak bateragarriak dira beste erakunde publiko zein pribatua helburu berberaz emandakoekin, betiere gehiegizko finantzaketarik gertatzen ez bada. Hori gertatzekotan, idatziz, egoera hori Udaleko Berdintasun Zerbitzuari jakinarazi beharko zaio; helburua, dirulaguntza ekonomikoaren zenbateko behar den muturreko kopurura murriztea izanik.

13.2. Beste administrazio edo entitate batean, publikoa edo pribatua, estatukoa edo nazioartekoa dirulaguntza eskatu edo lortu bada Deialdi honetara aurkeztutako jarduera edo proiektua garatzeko, proiektuaren eskaerarekin aurkezten den dokumentazioarekin batera azaldu beharko da zein den dirulaguntza eskatu dioten administrazioa edo entitatea, baita eskatutako eta, halakorik bada, emandako diru-kopurua ere.

13.3. Diruz-lagundu den jarduerarako kofinantzazio existentzia, zehaztuta izan beharko da ondorengo justifikazio ekonomikoan (zenbatekoa, etorrera, babesten dituen gastuak...).

14.- Dirulaguntza ordainketa eta gastuen ziurtagiria.

14.1. Behin dirulaguntza onartuta, emandakoaren %80 ordainduko da; eta gainontzekoa (%20) gastuen justifikazioarekin eta memoriaren aurkezpenarekin emanen da.

14.2. Dirulaguntzaren justifikazioa:

Gehenez ere 2026ko abenduaren 9an, aurkeztutako eta onartutako proiektuaren justifikazio osoa egingo da, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa % 100 baino txikiagoa izan edo ez alde batera utzita.



Horretarako, dokumentazio tekniko-ekonomikoa aurkeztuko da, 2026ko urtarrilaren 1etik azaroaren 30era aurkeztutako eta onartutako proiektuaren gastua jasoko duena.

Horretarako, 14.3 atalean ezarritakoa aplikatuko da.

14.3. Dirulaguntzaren xede diren jarduketak egin ondoren, entitate onuradunek onartutako proiektuaren aurrekontuaren zenbatekoa justifikatuko dute, proiektua gauzatzeko dirulaguntzaren % 100 lortu ez bada ere.

Horretarako, 2026ko abenduaren 9rako, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute, eta dokumentu bereizietan bidali. Dokumentu horiek atal hauei dagozkie, eta eskuragarri dauden eranskinetara egokitu beharko dira, baldin badaude. Eranskin horiek dirulaguntzaren fitxatik deskarga daitezke, eta esteka oinarri arautzaile hauen testuaren amaieran dago:

- II. Eranskina: Azken justifikazioaren memoria.
- V Eranskina: Gastuen eredia. Bertan, zerrenda bat agertuko da, kalkulu-orriaren formatuan, aurkeztutako fakturekin eta horien ordainketa-egiaztagiriekin bat etorri beharko duten ekintzen gastu guztien banakapenarekin.
- -Dirulaguntza jasotzeko aurkeztutako proiektuaren ekintza guztien fakturak eta ordainagiriak erantsiko dira, Estella-Lizarrako Udalak aurkeztutako proiekturako lortutako dirulaguntza, baloratu ondoren, % 100ekoa izan ez arren.

Modu baliodunean egindako fakturen jatorrizko fakturak edo kopia, eta horiek ordaindu izanaren ziurtagiriak toki-erakundearen izenean, zergak eta balio baliokidea duten eta merkataritzako trafiko juridikoan edo administrazio-eraginkortasun baliokidea duten gainerako agiriak, diruz laguntzeko moduko aldiarekin bat datozenak, urtarrilaren 1etik azaroaren 30era.

- Egindako ekintzen eta ekintza horiek egin edo zabaltzearen ondoriozko produktuen froga dokumentala. Haietan jasota geratu beharko da Estella-Lizarrako Udalak diruz lagundutako proiektuan parte hartu duela agerrarazteko betebeharra bete duela, egiten den publizitatean eta zabalkundean txertatuz, bai eta horrekin lotuta egindako dokumentazio guztian ere, honako hau barne: "Colabora el Ayuntamiento de Estella-Lizarrako Udalak diruz lagunduta" eta Udalaren eta Berdintasunerako Udal Zerbitzuaren logoa.
- VI. Eranskina: Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza. 5.1 klausulako c eta d ataletako ekintzak kontratatu badira, aholkularitza-enpresek edo - pertsonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko prestakuntza dutela egiaztatuko beharko da.

Zehaztutako datan justifikatu ez diren dirulaguntzak, efekturik gabe geratuko dira eta jasotako eta justifikatu gabea izan den zenbatekoa itzuli beharko du. Ez itzultzekotan, zorra premiamendu bidez eskatuko da.



14.4. Instrukzio organoak ikusten badu onuradunak aurkeztutako justifikazioan zuzendu daitezkeen akatsak daudela, hamar egun balioduneko epea emanen dio erakunde eskatzaileari akats horiek zuzen ditzan.

14.5. Benetako gastuen zenbatekoa justifikatu beharreko zenbatekoa, hau da, aurkeztutako proiektuaren aurrekontua, baino txikiagoa bada, dagokion zatia itzuliko da, edo aipatu zenbatekoa bigarren ordainketatik kenduko da.

15.- Entitate onuradunen betebeharrak.

Deialdi honetako dirulaguntzaren bat jasotzen duten elkarte eta entitateek, edozein kasutan, honako betebeharrak bete beharko dituzte:

15.1. Diruz lagundutako proiektua gauzatea, deialdiaren helburua betez.

15.2. Frogatzea Udalaren Berdintasun Zerbitzuari, betebeharrak, baldintzak eta dirulaguntza emateko arrazoi izan den helburua bete dela.

15.3. Udalaren Kontu-hartzailletza Orokorrari dagozkion dokumentazioaren eta finantzaketaren gainean egiten dituen egiaztapen eta kontrol teknikorako jarduketak onartzea.

15.4. Diruz lagundutako jarduerak finantzatzeko lortutako beste laguntza, dirulaguntza, diru-sarrera edo baliabideak jakinaraztea Udaleko Berdintasun Zerbitzuari. Jakin bezain pronto egingen da jakinarazpena, eta, betiere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

15.5. Udaleko Berdintasun Zerbitzuari edozein gorabeheraren berri helarazi, objektiboa zein subjektiboa, dirulaguntza emateko kontuan hartutakoa.

15.6. Kontabilitate liburuak edo, bere kasuan, kontabilitateko egoera-orriak izatea, aplikatzen diren legeek eskaturikoak, egiaztapen eta kontrol ahalmenak behar bezala betetzen direla bermatzeko.

15.7. Jasotako funtsen aplikazioari buruzko frogagiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztapen eta kontrol lanen xede diren bitartean.

15.8. Publizitate egokia eman beharko dute, euskaraz nola gaztelaniaz, programen, jardueren, inbertsioen edo dirulaguntzen finantzaketaren izaera publikoa objektu duen edozein jarduketa mota, Estella-Lizarrako Udaleko eta Entitate honetako Udal Berdintasun Zerbitzuko logotipoekin.

15.9. Dirulaguntza ematean jarritako obligazio partikularrak betetzea.

15.10. Dirulaguntzak lortzeko baldintzak ez betetzekotan, edo burututako jardueraren kostua baino diru gehiago jasotzearen kasuan, hautemandako fondo publikoen itzultzeari ekinen zaio.

16. Dirulaguntzak ematea.



16.1. Dirulaguntzak emateko ebazpena gehienez ere hilabeteko epean emanen da eskabideak aurkezteko azken datatik, interesaturiko entitateei jakinaraziz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen, urriaren 1eko 39/2015 Legeak aurreikusten duen bezala.

16.2. Dirulaguntza emateko ebazpenean entitate eskatzaileen zerrenda jasoko da, diruz-lagundutako proiektuak eta proiektu bakoitzari zenbateko dirulaguntza eman zaion eta, bere kasuan, bestelako eskaeren atzera botatzea, horien zergatia emanez, hala nola, aurrekontuaren esleipen faltari men egiten dietenak.

16.3. Dirulaguntza lehen aldiz eskatu duten entitate onuradunek aurkeztu beharko dute, 10 eguneko epean Ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik, eman zaien dirulaguntza zenbatekoa emankor egiteko transferentzia bidezko abonua eskaera.

17.- Dirulaguntza itzultzea.

17.1. Dirulaguntzak emateko ebazpena baliogabetzeko arrazoiez gain (Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 36. artikuluan jasoak), jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, eta dirulaguntza ordaindu zen egunetik itzuli behar diren gaineko ebazpena ematen den arte sortutako berandutze-interesak eskatuko dira:

- a) Dirulaguntza lortzen denean horretarako eskatzen diren baldintzak faltsutuz edo hori eragotziko zuketena baldintzak ezkutatu.
- b) Dirulaguntzaren xede den helburua, jarduera edo proiektua edo dirulaguntza emateko jarritako baldintzak burutu gabe uzten direnean, osorik nahiz hein batean, edo hartu behar zen jokabidea hartzen ez denean.
- c) Justifikazio betebeharra betetzen ez delarik edo behar bezala justifikatzen ez delarik.
- d) 15. oinarrian aurreikusitako elkarte adjudikaziodunen betebeharrak betetzen ez direnean.

17.2. Itzuli beharreko zenbatekoak eskubide publikoko diru-sarreratzat hartuko dira eta diru-sarrerak jarritako epeetan egiten ez badira, premiamendu bidez eskatuko dira.

17.3. Jasotako kopuruak, guztiz edo partez itzuli behar badira, itzuli beharko dira ere, holakorik bada, sortutako berandutze-interesak itzuli behar horretatik aparte, bidezko diren zehapenak ezarri ahalko dira. Itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko (jasotako funtsak guztiz edo partez) proportzionaltasun irizpidea kontuan hartuko da.

18.- Itzulketa-prozedura

Itzulketa-prozedura emandako dirulaguntza itzultzeko, Diru-laguntzei buruzko, azaroaren 17ko, 38/2003 Legearen 42. artikulua xedatutakoarekin bat egiten da.

19.- Helegiteak



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

Oinarri hauen aurka eta haiek betearazteko hartzen diren administrazio egintzen aurka errekurtsio hauetako edozein aurkeztu ahalko da:

19.1.- Berraztertzeiko errekurtsioa egintza agindu edo erabakia hartu duen udal organoari berari zuzenduta, hilabeteko epean, egintza edo erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikuluek xedatutakoarekin bat.

19.2.- Zuzenik, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa, Arlo bereko Epaitegiari edo Salari zuzendua, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8.1 artikuluari jarraikiz.

19.3.- Eta, hautara, gora jotzeko errekurtsioa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, Erabaki hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.

20.- Interpretazioa

Deialdi honetan sortu ahal diren auzi guztien erabakia bakarrik Estella-Lizarrako Udalaren eskumena izanen da, eta oinarri hauetan aurreikusi ez den guztirako Dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza orokorra aplikatuko da, halaber, azaroaren 17ko 38/2003 Legea, Diru-Laguntzei buruzkoa eta horren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuan onartutakoa, baita horrekin bat datorren gainerako arautegia eta aplikatzeko egokia dena ere.

21.- Datuen babesa

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoaren bat, deialdi honi heldu ahal izateko jasotako datuak Estella-Lizarrako Udalaren Berdintasun Udal Zerbitzuaren fitxategi batean bilduko dira.

Estella-Lizarran, 2026ko urtarrilaren 12an.

Estella-Lizarrako Udaleko Alkatea, Marta Ruiz de Alda.



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

I ERASKINA- DIRULAGUNTZA ESKABIDEA

1. ENTITATEAREN DATUAK

Izena:

IFZ:

Egoitzaren helbidea:

Telefonoa:

Ordez kariaren izen-deiturak:

Laneko eta familiako eginkizunak batera eramateko itunean egon: BAI EZ

Emakumeen elkarte edo Elkarte mistoa

Banku kontuaren zenbakia:

2. POIEKTUAREN IZENBURUA:

3. OINARRITU (Arrazoiak azaldu):

4. HELBURUAK:

4.1. OROKORRAK.

4.2. ESPEZIFIKOAK.

5. EGIN BEHARREKO JARDUERAK ETA Jarduera bakoitzerako proiektua gauzatzeko eta jarduera bakoitzaren garapena azaltzeko erabilitako METODOLOGIA. (Zerrendatu).

6. EGUTEGIA:



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

7. BALIABIDEAK:

7.1. GIZA BALIABIDEAK (proiektuan parte-hartuko duten pertsonak, profesionalak zein boluntarioak...)

7.2. BALIABIDE MATERIALAK (lokalak, materialak...)

8. KOKAPENA (proiektua non eginen den adierazi)

9. AURREKONTUA (Bi atal izanen ditu)

9.1. GASTUEN AURREKONTUA

9.2. DIRU-SARREREN AURREKONTUAK:HONAKO HARTUKO DU BARNE:

- i. Entitate eskatzaileak jarriko dituen berezko baliabide ekonomikoak edo kideen kuoten bidezkoak eta/edo jarduerak egitea, etab.
- ii. Jaso beharreko dirulaguntzak edo beste erakunde batzuetara eskatutakoak.
- iii. Udalari eskatutako dirulaguntza.



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

II. ERANSKINA. ONURADUNA IZATEKO ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Adi: Letra larriz bete.

Jauna/andrea. _____ NAN Zk.

_____ elkartearen edo entitatearen izenean,

IFK/IFZ zk. _____

ADIERAZTEN DU:

- Ordezkatzen duen elkarte edo entitatea Nafarroako Gobernuko Elkarten Erregistroan inskribaturik dagoela, eta erregistro horretan aurkeztutako dokumentazioak ez duela inolako aldaketarik izan.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 13. artikuluan dirulaguntzen onuradun izateko ezarritako ezein debekutan ez dagoela sartuta.
- Elkarte edo erakunde eskatzaileak ez duela dirulaguntzak jasotzeko aukera kentzen dion zehapenik, ez eta horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik ere.
- Elkarte edo entitate eskatzaileak:
 - Ez du inolako dirulaguntzarik jaso edo eskatu xede berarekin inolako administrazio publikoa edo erakunde pribatuari.
 - Xede eta helburu bererako, beste edozein administrazio publiko edo erakunde pribaturen laguntzak lortu edota eskatu dituela, emandakoak nahiz ebatzi gabeak izan.
 - Erakundea:
 - Zenbatekoa:

Eta horrela jasota gera dadin Estella-Lizarrako Udalean, berdintasunaren arloan jarduerak egiten dituzten entitate eta elkarteei 2026ko ekitaldian dirulaguntzak eskatzeko, honako hau sinatzen dut

Estella-Lizarran, 2026ko _____ aren (e)an

ORDEZKARIAREN SINADURA ETA ZIGILUA:



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

III. ERANSKINA

**ELKARTEAREN EDO ERAKUNDEAREN ORDEZKARITZA-ORGANOA OSATZEN DUTEN PERTSONEN
IDENTITATEARI ETA SEXUARI BURUZKO ADIERAZPENA ETA ELKARTUTAKO EMAKUMEEN
KOPURUA ETA ELKARTUTAKO GIZONEN KOPURUA ETA 30 URTETIK BEHITIKO EMAKUME
KOPURUA ADIERAZTEN DITUEN ADIERAZPENA**

Andrea. _____ ehonako honen
ordezkari gisa _____, I.F.K. zk. _____,
ADIERAZTEN DU:

Ordezkaritza-organoa honako hau dela:

IZENA ETA DEITURAK	KARGUA	SEXUA

Elkarteak/erakundeak ___ bazkide dituela, eta ___ emakumeak eta ___ gizonak direla.
Elkartekide diren emakumeen guztizkotik ___ 30 urtetik beherakoak dira.

Estella-Lizarran, 2026ko _____ aren (e)an

ORDEZKARIAREN SINADURA ETA ZIGILUA



IV. ERANSKINA – BUKAERAKO MEMORIA

1. ENTITATEAREN DATUAK:

--

2. PROIEKTUAREN IZENBURUA:

--

3. EGINDAKO JARDUERAK

--

4. HELBURUEN EBALUAZIOA

--

5. APLIKATUTAKO METODOLOGIA.

--

6. BALIABIDEAK

- 6.1. GIZA BALIABIDEAK (proiektua gauzatzean parte hartu duten pertsonak)
- 6.2. BALIABIDE MATERIALAK (lokalak, materialak...)

7. EBALUZAZIOA OROKORREAN

--

8. GASTUEN JUSTIFIKAZIOA:

- 8.1. Entitate eskatzaileak jarri dituen berezko baliabide ekonomikoak edo kideen kuoten bidez, etab.
- 8.2. Udaletik eta beste erakunde batzuetatik jasotako dirulaguntzak.
- 8.3. Jatorrizkoak edo konpultsaturiko fotokopiak izatea, dirulaguntza eskainiko den aldiari dataturik egotea, arduradunaren NAN zenbakia edo lizentzia fiskalaren zenbakia izatea, hornitzailearen zigilua eta sinadura edukitzea eta eskaera egitean aurkeztutako aurrekontuarekin bat etortzea.
- 8.4. Jarduera burutu denaren egiaztagiri grafikoak, Estella-Lizarreko Udaleko eta Berdintasun Arloko logotipoekin



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

V. ERANSKINA DIRUZ LAGUNTZEA NAHI DEN PROIEKTUAREN AURREKONTUA ETA DIRU-SARRERAK

AURREKONTU EREDUA	
GASTUAK	ZENBATEKOA
Aholkularitza teknikoa	
Hizlariak eta diruz laguntzen ahal diren ekintzak egiten dituzten pertsona edo entitateek sortutako ordainsariak, baita joan-etorriengatikoa dietak eta horren ondoriozko ostatuak ere.	
Diruz lagundutako jardueren material, argitalpen eta publizitate gastuak	
Alokairu, hornidura edo ekipamendu gastuak edo material suntsikorak (diruz lagundutako kopuruaren %20 gehienez)	
Beren burua zaindu ezin duten pertsonen arretak eragindako gastuak	
Finantza-gastuak	
Besterik	
AURRKONTUA, GUZTIRA	
SARRERAK	ZENBATEKOA
Diruz lagun daitekeen jarduerarako beste dirulaguntza batzuk	
Diruz lagundu daitekeen jardueraren kuotak	
Dirulaguntza jaso dezaketen jardueretarako dohaintzak	
SARRERAK, GUZTIRA	

LABURPENA	ZENBATEKOA
Gastuak	
Sarrerak	
Guztira	
Aurreikusitako defizita	

Estella-Lizarran, 2026ko

aren (e)an.

DEKLARATZAILEAREN SINADURA



VI. ERANSKINA. JARDUEREN GASTUEN ETA SARREREN MEMORIA-EREDUA

GASTUAK									
ZK.	HORNI-TZAILEA	DATA FAKTURA	FAKTURA ZK.	DESKRIP-ZIOA	ZERGA OINARRIA	BEZa EZ KENGARIA	BATU-KETA	PFEZ	ORDAINKETA DATA
(*)									
Aurkeztutako fakturen zk.									
GASTUAK GUZTIRA									

(*) Aurkeztutako fakturan zenbakiak.

DIRU-SARRERAK									
ZK.	ZORDUNA	DATA FAKTURA	FAKTURA ZK.	DESKRIP-ZIOA	ZERGA OINARRIA	BEZa EZ KENGARIA	BATU-KETA	PFEZ	ORDAINKETA DATA
(*)									
Aurkeztutako fakturen zk.									
DIRU-SARRERAK GUZTIRA									

(*) Aurkeztutako sarrera-dokumentuen zenbakiak.

BEZa. irabazi asmorik gabeko elkarte edo erakundearentzat gastu bat gehiago da.

BEZa. BEZaren % _____ kentzen da.

LABURPENA	
GASTUAK GUZTIRA	
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	
JARDUERAREN DEFIZITA	



AYUNTAMIENTO
ESTELLA-LIZARRA
UDALA

VII. ERANSKINA. GENEROAREN ARLOKO PRESTAKUNTZAREN ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENA

Adierazpen hori kontratatutako laguntza teknikoak osatu eta sinatu beharko du.

_____ jaunak/andreak, _____ NAN/IFZrekin,
(enpresaren izena) ordezkatuz edo bere izenean (ezabatu ez dagokiona),
_____ helbidea duena (telefonoa:
_____)

ERANTZUKIZUNEZ ADIERAZTEN DUT:

Laguntza teknikoa ematen duen enpresak langile trebatuak dituela, adierazitakoaren arabera.

- Proiektuaren ardura duen taldeak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean gutxienez 240 orduko prestakuntza duten pertsonak ditu. Prestakuntza hori erakunde publikoek edo unibertsitateek (publikoek edo pribatuek) ematen dute zuzenean edo lankidetzan.

Prestakuntza duten langileek gauzatuko dute proiektua.

- BADUT gutxienez 240 orduko prestakuntza, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean, erakunde publikoek edo unibertsitateek (publikoek edo pribatuek) zuzenean edo lankidetzan emana.)

Estella-Lizarran, 2026ko _____aren ____ (e)an

SINADURA